



PLASTIKOEK ERAGINDAKO KUTSADURARIK GABEKO PLANETA BATEN ALDE

Por un planeta
sin contaminación
por plásticos

ASTE
BERDEA
Semana
verde
2018



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

EKAINAK 2
Oria ibai ertzaren garbiketa
herrikoia

Día 2 de junio

Limpieza popular de los
márgenes del río Oria

Elkarketa-lekua / Punto de encuentro:
Okendo plaza, 9:30 h

Izen-ematea / Inscripciones:
943 670 249

EKAINAK 5, 6, 7 eta 8
Poltsa berrerabilgarrien banaketa.
Horma-irudia sortzea.

Días 5, 6, 7 y 8 de junio

Reparto de bolsas reutilizables.
Creación de mural.

Informazio puntua / Punto de información: **Okendo plaza**

Ordutegia / Horario:

Ekainak 5 eta 6 / Días 5 y 6 de junio: 10:00 - 13:00
Ekainak 7 eta 8 / Días 7 y 8 de junio: 16:30 - 19:30

**Bisita gidatuak Urnietako ontzi-
hondakinen sailkatze plantara.**
**Kontsumo arduratsuaren
inguruko tailerrak.**

Visitas guiadas a la planta de
separación de envases de Urnieta.
Talleres de consumo responsable.

Parte hartu nahi baduzu, deitu izena emateko
Si quieres participar, llama por teléfono:
943 670 249

1. Aurkezpena

Iraunkortasunean eta berdintasunean oinarritutako garapen baten alde pertsonak agente aktibo bilakatu daitezten, eta gizarte-komunitateek ingurumen gaitan jarrera aldaketa sustatze aldera, Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak, 1972ko abenduaren 15eko erresoluzioan 2994 (XXVII), ekainaren 5a Mundu mailako Ingurumen Eguna izendatu zuen, gizartea ingurumenaren zaintzearen eta hobetzearen aldeko sentsibilizazioa sustatzeko.

Orduz geroztik, urtero-urtero Nazio Batuek gai bat proposatzen dute mundu mailak lantzeko, eragin handiagoa izan dezan. Aurtengo gai nagusia “Plastikozko hondakinen kutsadurarik gabeko planeta baten alde” da. Helburu nagusia hiritarrak kontzientziaztea eta sentsibilizatzea da, plastikoaren gehiegizko kontsumoa saiheste alderan eta gehiegizko kontsumo horrek naturarengan duen eragin kaltegarriaz.

Aste berdearen filosofiak gaia maila lokalean landu nahi du, baina ikuspegi globalarekin. Horregatik, gure proposamena Lasarte-Oriako herritarren arreta bereganatzen ahaleginduko da, arazoaren dimentsioaz ohartarazteko eta aldi berean, gutariko bakoitzak gure eguneroko ekintzekin lagundu dezakegula azalduz. Urtero 8 milioi tona plastiko inguruk itsasoan bukatzen dute, itsasoko bioaniztasuna pozoinduz. Kantitate horren parekoa litzateke minuturo hondakinez beteriko kamioi batek itsasora hustutzea. Apirilean katxalote baten gorpua aurkitu zen Espainiako hegoaldeko kostaldean eta autopsiaren emaitzak argitu zuen sabelean aurkitutako 29 kg plastiko izan zirela heriotzaren arrazoia. Inpaktu handiko berri horiek, gehienetan urrutiko arazoak direla uste dugu baina gure errealitateaz eta gertueneko inguruneaz eta horren harira, ez dugu oso urrutira joan beharrik izango plastikozko hondakin ugari aurkitzeko lurrean botata, ibai ertzetan, hezeguneetan...

2. Kanpainaren helburu orokorrak

- Lasarte-Oriako herritarrei erabilera bakarreko plastikoen gehiegizko erabilerari lotutako arazoa ezagutzera ematea.
- Erabilera bakarreko plastikoen erabileraren murriztea sustatzea eta sortzen diren plastikozko hondakinen gaikako bilketa eraginkorra sustatzea.
- Herritarrei jokaera-eredu egokiak helaraztea, modu arduratsuan joka dezaten.
- Udala gai horren inguruan abian dituen ekimenen berri ematea.

3. Jarduera-egitaraua

Ekainak 2, larunbata: ORIA IBAIAREN GARBIKETA HERRIKOIA

Elkarketa-puntua: 9:30 h Okendo plazan.

Herritar guztiei zuzendua. Adin txikikoak, lagunduta. Deitu izena emateko: 943670249

Michelin paretik hasiko gara ibaiaren ertza garbitzen, Txikierdirantz jarraituz. Zati zabalagoa garbitzeko aukera ikusten badugu, Zumaburu parkeko eremutik jarraituko dugu.

Jarduera bukatzeko hamaiketako egingo dugu parte-hartzaile guztiok 12:00ak aldera.

Ekainak 4: Urnietako ontzien sailkatze plantara bisita gidatua.

Autobusaren irteera 9:30ean anbulatorio paretik. Lekua erreserbatzea nahitaezkoa da, deitu: 943670249

Ekainak 5-8: INFORMAZIO PUNTUA, POLTSEN BANAKETA, PERFORMANCE
Okendo plaza

Ekainak 5 eta 6: 10:00-13:00 h

Ekainak 7 eta 8: 16:30-19:30 h

Informazio-puntua zabalduko da herritarrei erabilera bakarreko plastikoen erabilera murriztearen garrantziaz informatzeko eta hondakinak gaika biltzearen garrantziaz jabetu arazteko.

500 **poltsa berrerabilgarri** banatuko dira.

4 x 2 metroko **horma-irudia** osatuko da kanpainaren mezuarekin (PLASTIKOEK ERAGINDAKO KUTSADURARIK GABEKO PLANETA BATEN ALDE) plastikozko tapoiak erabiliz. Herritar guztiak gonbidatuko dira jardueran parte hartzera.

Gainera, **kartelak** banatuko dira herriko establezimendu eta tabernetan. Era berean, **kontsumo arduratsuaren inguruko tailer** bat egingo da HHI-EPA (Helduen Heziketa Iraunkorra) zentroan ekainaren 5ean.

4. Informazio osagarria programatutako ekintzen inguruan

4.1. Oria ibaiaren garbiketa herrikoa

Sortzen ditugun hondakin kopuru handi batek, horietako asko plastikoak, eta behar bezela kudeatzen ez ditugunak, itsasoan amaitzen dute eta urte luzez irauten dute, itsas ekosistemari kalte handiak eraginez.

Hondakin asko ibaien bidez iristen dira, haien bideko herrietan hartzen dituztenak.

Ibaiaren garbiketa herrikoa egitea oso ekintza interesgarria da hainbat arrazoiengatik:

-Sentsibilizazio potentzial altua duen jarduera da. Inpaktu handikoa da parte hartzen duten herritarrentzat (herritar kontzientziatuenak izan ohi dira) eta baita gainerako herritarrentzat ere, jasotako guztia erakustea komeni baita, edo gutxienez, prentsa-ohar bidez zabaldu.

-Hondakinen kantitate handiak lortzen dira, urteetan zehar pilatzen joan direnak. Horrela, ibaiaren egoera hobetu egiten da.

Ekintzaren helburu nagusia sentsibilizazioa izango da, pertsona boluntarioen talde lanaren bitartez. Esperientziak atsegina behar du izan parte-hartzaileentzat, hau da, ekintza positibo bat egin dutenaren sentsazioarekin gelditu behar dute, ondo pasaz. Akatsa litzateke ibaiaren garbiketa sakonean obsesionatuko bagina.

Gaur gaurkoz Oria ibaiaren ertzak zikinak daude, plastiko hondakinekin batez ere, azken hilabeteetan egindako euriteen ondorio.

4.2. Urnietako ontzien sailkatze plantara bisitak

Plastikozko hondakinen arazoaren dimentsioaz jabetzeko lekurik egokiena Urnietako ontzien sailkatze planta da. Instalazio horretara eramaten dira San Markosen eremuko eta Txingudiko herrietako edukiontzi horietan jasotako hondakinak, hau da, Gipuzkoako populazioaren erdia baino gehiago.

Bisita gidatu bat egingo da Artelatzeko ingurumen-hezitzaile aditu baten eskutik. Hondakin frakzio bakoitzari ematen zaion tratamendua eta jarrraitzen duen bidez erakutsiko zaie. Etxean gaikako bilketa modu egokian egitearen garrantzia azpimarratuko zaie. Edukiontzi horian zer hondakin utzi daiteken eta zer ez errebasatuko da.

Ordu eta erdi inguruko iraupena izango du. Euskara edo gaztelania erabili dezakegu azalpenak emateko.